

Asisko gutuna

2021eko urtarrila

3. printzipioa. Eguneroko bizimodua: kanporantz, elkartasuna

147 zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Barrutik aldatzen garenean, kanpokoarekiko, munduarekiko eta besteekiko dugun harremana ere aldatzen hasten da. Eta gertatzen da, baita ere, besteengana irekitzen garenean, batez ere behartsuenei, barrua aldatzen hasten zaigula.

Gogoetarako gaia

Pobreek eraldatzen gaituzte

Elkartasunera bultzatzen gaituzten arrazoi asko egon daitezke: pertsonen errealitate mingarria ikusi izana, behartsuen baten laguntza-eskaera, munduan dudan lekuari buruzko hausnarketa. Arrazoi batzuk gure barnetik sortzen zaizkigu, eta beste batzuetan, berriz, kanpoko errealitateak eskatzen digu mugitzea. Edozein kasutan, gugandik besteenganantz, batez ere behartsuenenganantz, irtekeko urratsa eman ondoren, ondorioetako bat da gu gertatzen garela aldatuak, eraldatuak.

Eraldaketa hori hainbat eremutan gertatzen da. Errealitateaz eta munduaz daukagun ikuspegia aldatzen dugu. Mundua uste genuena baino konplexuagoa eta anitzagoa da. Gure gizartean nagusi diren eta konturatu gabe baliatzen ditugun bidegabekeriak hautematen hasten gara. Badira mekanismo gaiztoak pertsonak bizitza ankerrera kondentzen dituztenak...

Behartsu bakoitzean dagoen pertsona ere deskubritzen da: bere premien mundua, hain bizitza haus-

korrera eramanean duten baldintzapenak... Pobreak izateak ez du esan nahi duintasunik gabea izatea, ez eta ona ala gaiztoa izatea automatikoki.

Pobreekiko harremanak argi egiten digu geure buruz. Gizateria honetan dugun leku pribilegiatuaz gehiago ohartzen gara, ditugun aukerez, nahiz eta ez jabetu orain arte. Bizitzan mugitzen gaituzten errealitateei benetako balioa ikusten ere laguntzen digu; balio gutxikoei garrantzia ematen genien eta balio handikoak ez ikusten.

Eta, batez ere, Jesusen Ebanjelioaren gako batzuetara hurbiltzen gaitu bereziki: Jainkoak txikiak dituela kutunenak. Hurbilketa hori ez da batere teorikoa edo ideologikoa izango, esperientziazkoa baizik. Ebanjelioa izango da benetan.

Hori bai, horrek guztiak barrutik eta kanpotik eraldatuko gaitu, arriskatzera ausartzen bagara. Ez dago pertsona behartsuak bezalakorik, eta haienganako gure irekitasuna, gure bizitza alda dadin.

Ebanjelioko pasarteak: Mk 7,24-30

Handik, Tiro aldera joan zen Jesus. Etxe batean sartu zen, eta ez zuen inork jakiterik nahi; baina ezin izan zen ezkutuan egon. Alaba espiritu gaiztoak hartua zeukan emakume bat, Jesusen berri jakin zueneko, etorri eta oinetan ahuspeztu zitzaion. Emakumea jentila zen, feniziarra. Eta bere alabagandik deabrua bota zezala eskatzen zion Jesusi. Jesusek erantzun: –Utzi lehenik seme-alabak asetzen; ez dago ongi seme-alabei ogia kendu eta txakurrei botatzea. Emakumeak erantzun zion: –Bai, Jauna, halaxe da; baina txakurrek ere jan ohi dituzte seme-alaben ogi-apurrak mahai azpian. Orduan, Jesusek: –Ederra erantzuna! Zoaz, bada; atera da deabrua zure alabagandik. Itzuli zen etxera eta ohean etzana aurkitu zuen alaba; alde egina zen deabrua.

Frantziskotar espiritualtasuna

Nork adieraz dezake gizon honek behartsuei zien gupida? Berezko bihozberatasuna zuen benetan, , eta materialki lagundu ezin zienean maitasuna eskaintzen zien. Edozein gabezia edo premia norbaitengan ikustean, barne gogoeta bizkorrez Kristorengana bideratzen zuen. Edozein behartsurengan Kristo ikusten zuen. Eta horrela, inbidia oro beregandik uxatu zuenak, inbidia bakar bat ezin izan zuen gainditu, pobretasunarena. Bera baino pobreagoaren bat ikusten bazuen, haren inbidia sartzen zitzaion berehala.

Jainkoaren zerbitzaria predikatzen zebilen batean, behartsu batekin egin zuen topo bidean. Eta haren biluztasuna ikusiz, lagunari esan zion nahigabez: «Pobre honen miseriak lotsa handia ematen digu eta biziki salatzen du gure pobretasuna». «Zer dela eta, anaia?», galdetu zion lagunak. Eta santuak atsekabez: «Nik neure aberastasun eta neure damatzat aukeratu nuen pobretasuna, eta pobretasunak gehiago distirutzen du honengan nigan baino. Edo ez al dakizu mundu osoan zabaldu dela, gu garela Kristogatik pobreenak? Baina gizon honek erakusten du hori ez dela egia». (2Zel 83-84).

Otoitza

Zorionekoa behartsua eta ahula zaintzen dituen.
Zorionsua eskua luzatzen duena
beharra duenari.

Zorionekoa laguntza bat ukatzen ez dakiena.
Zorionekoa maitatzen eta konprometitzen dakiena.
Zorionekoak beldurrik ez dutenak
dena arriskatzeko Erreinuaren alde.

Zorionsuak aldatzen dakitenak
lankidetzaren lehiaren ordeztu,
elkartasuna axolagabekeriaren ordeztu
xalotasun eta maitasuna indarkeriaren ordeztu

Lagundu, Jauna,
bihotzetik aldentzen
askotan inguratzen duen berekoikeria.

Lagundu iezaguzu porrot ez egiten
besteen minari
adi egoteko ahaleginean.

Lagundu iezaguzu errealitateari begiratzen,
bidegabekeria eta gaiztakeria aurkizeko.

Lagun iezaguzu esperantzaren mezulari izaten,
besteen alde bizitzen,
Ebanjelioaren zerbitzuan bizitzen.

Badakizu, Jauna,
min ematen digula fruiturik gabeko
hainbeste desio on ikusteak;
min ematen digula gauzak argi izan buruan
eta ezin bihurtu konpromiso eraldatzaileetan.

Egin emankor, Jauna, gure zerbitzua.
Emaguzu Izpirituaren indarra
Zure hitza eta gure nahiak
egia bihurtu daitezten.

Gutuneko azken hitzak

"Pobreek ebanjelizatu egiten gaituzte, egunero Ebanjelioaren edertasuna aurkitzen lagunduz. Ez dezagun alferrik galdu graziazko aukera hau." Frantzisko Aita Santua

2021eko urtarrileko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate urtarrileko erreferentzia guztiak:

1. Lk 2, 16-21	8. Mk 6, 34-44	15. Mk 2, 1-12	22. Mk 3, 13-19	29. Mk 4, 26-34
2. Jn 1, 19-28	9. Mk 6, 45-52	16. Mk 2, 13-17	23. Mk 3, 20-21	30. Mk 4, 35-41
3. Jn 1, 1-18	10. Mk 1, 7-11	17. Jn 1, 35-42	24. Mk 1, 14-20	31. Mk 1, 21-28
4. Jn 1, 35-42	11. Mk 1, 14-20	18. Mk 2, 18-22	25. Mk 16, 15-18	
5. Jn 1, 43-51	12. Mk 1, 21-28	19. Mk 2, 23-28	26. Mk 3, 31-35	
6. Mt 2, 1-12	13. Mk 1, 29-39	20. Mk 3, 1-6	27. Mk 4, 1-20	
7. Mt 4, 12-17. 23-25	14. Mk 1, 40-45	21. Mk 3, 7-12	28. Mk 4, 21-25	

Geure web gunea bisitatu

www.asissarea.org



Asis Sarea

646 21 48 96

Urtarrileko Otoitza
hilaren 28ean
izango da.